



Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos

Bildutakoak: / Asistentes:

Alkatea / La Alcaldesa Maider Lainez Lazcoz

Zinegotziak: / Concejales/as:

EH-Bildu

Andoni Alvarez Lete
Estibalitz Mujika Tolaretxipi
Jon Zulueta Berastegi
Garazi Usandizaga Zubiria
Julian López Aracama
M^a Teresa Etxeberria Arteun

PSE-EE

José Luis Verdasco Gutierrez
Ascensión Parrón Peguero
Petra Romero Pozo

EAJ-PNV

Maria Jose Izagirre Iturzaeta
Alexander Huitzi Alfonso
M^a Sagrario Ruiz Fernández
Imanol Goenaga Egibar

Elkarrekin Podemos M^a Teresa Santana Rubio

Akta Zenbakia	0000013
Eguna	2022/10/27
Hasiera	19:00
Amaiera	19:40

Idazkaria:

María Uriarte Zurikaray

Kontuhartzailea

Myriam Lizaso
Arruabarrena

Interpretaria

Jon Unanue Lopez

Ez dira bertaratu eta adierazi dute: / No asisten y se excusan:

Oscar Mendo González, quien delega su voto en el concejal José Luis Verdasco Gutiérrez
Xabier Fondón Pajares

Gai Zerrenda:

- 2022.09.12, 2022.09.29 eta 2022/10/06an egindako bileren akten zirriborroak irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Xedapenak

- HIE 1 eremuko AI 1.14- Alde Zaharra hirigunerako Hiri-antolamenduko Plan Bereziaren Testu Bateratua behin betiko izaeraz onartzeko proposamena.
2023. urterako auto-taxien hiri-tarifak onartzea.
- Andoainen bidaiarien hiri garraio zerbitzuaren espleipen-prezioa osatzeko proposamena.
- 2022/8 zk.ko kreditu aldaketa espedientea onartzeko proposamena.
- Konpromiso-kreditua onartzeko proposamena
- Andoingo Udalaren jardunean genero-

Orden del Día:

- Lectura y aprobación, si procede, de los borradores de las actas de las sesiones celebradas el 12/09/2022, 29/09/2022 y 06/10.2022.

Parte Dispositiva

- Propuesta de aprobación, con carácter definitivo, del Texto Refundido del Proyecto de Plan Especial de Ordenación Urbana del subámbito AI 1.14 de AIU 1 Casco Viejo.
- Aprobación tarifas urbanas de autotaxi para el año 2023.
- Propuesta de complementar el precio de adjudicación del servicio de transporte urbano de viajeros en Andoain.
- Propuesta de aprobación del expediente modificativo de crédito 8/2022.
- Propuesta aprobación crédito compromiso.
- Propuesta de implantación de la estrategia de transversalidad de género en las actuaciones del



zeharkakotasunaren estrategia txertatzeko proposamena.

Ayuntamiento de Andoain.

Kontrola

- 8. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 1701/2022 zenbakidunetik 1919/2022 zenbakidunera.
- 9. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Parte de Control

- 8.- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la nº 1701/2022 y la nº 1919/2022.
- 9.- Ruegos, preguntas y propuestas.

Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.

Alkate andreak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on guztioi eta ongi etorriak izan zaitezte 2022ko urriaren 27ko udalbatzar hontara.

“Muy buenas tardes a todas y a todos y seáis bienvenidos al pleno del 27 de octubre del 2022.

“Hasi baino lehen komentatzea, batetik, Óscar Mendo zinegotzi jauna bajaran dagoela eta bere bozka, Jose Luis Verdasco jaunarengan ordezkatzeko duela. Eta EH Bildutik Xabier Fondón jauna falta zaigu gaur.

“Decíamos antes de comenzar que falta el concejal D. Oscar Mendo que está de baja y delega su voto en el Concejal D. José Luis Verdasco, y luego por parte de EH Bildu falta también el concejal Xabier Fondón.

“Hau kontuan izanda, hasiera emango genieke gaurko udal batzarrari.”

1. 2022/09/12, 2022/09/29 eta 2022/10/06an egindako bileren aktak irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Lehendabizi, 2022/09/12, 2022/12/29 eta 2022/10/06 datetako batzarraldiei dagozkien aktak aztertzeari ekin zaio, eta inork ezer adierazi ez duela kontuan harturik, onartutzat eman dira.

2. HEA 1 - Alde zaharra hiriguneko AI 1.14 azpierenmuaren Hiri-antolamenduko Plan Bereziaren Testu Bateratua behin betiko izaeraz onartzeko proposamena.

Kontuan izanik Alkatetzaren azaroaren 22ko 2106/2021 Ebazpenaren bidez hasierako onarpena eman zitzaiola HIE-1 Alde zaharra eremuko AI-1.14 azpierenmuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziari.

Kontuan izanik proiektua jendaurrean jarrita egon dela 2021eko abenduaren 10eko 235 zenbakiko GAOn, Berria egunkarian 2021eko abenduaren 16an eta El Diario Vasco egunkarian 2021eko abenduaren 17an eta Iragarki Taulan 2021eko abenduaren 10an argitaratutako iragarkien bitartez eta espediente hiritarren eskura jarritz Hirigintzako udal lansailean, iragarkia GAOn argitaratu zen biharamunetik 2022ko urtarrilaren 19 datara bitarte, biak barne eta denboraldi horretan ez dela aurkeztu erreklamazio edo iradokizunik.

2022ko apirilaren 7an, Iñaki Ezkai Ormazabal jaunak, Urmena SLren ordezkari gisa, Plan Berezi horren testu bategina aurkeztu zuen.

Proiektua Ura-Ur Agentziara bidali zen, sektoreko legerian aurreikusitako txostena egin zezan, eta aldeko txostena eman zen 2022ko uztailaren 13an.

Hirigintzako zinegotzi ordezkariaren 2022ko uztailaren 15eko idazkiaren bidez, Udalak aipatutako idazkian adierazitako gaiak zuzentzeko eskatu zuen, dokumentua behin betiko onartu aurretik, eta hori bete egin zen.

2022ko uztailaren 19an, Iñaki Ezkai Ormazabal jaunak, Urmena SLren ordezkari gisa, Plan Bereziaren Testu Bategina aurkeztu zuen, 2022ko uztailaren 15eko udalari erantzunez, hasierako onarpenaren erabakian ezarritako baldintzak betetzeko.



Ikusirik, Udal Arkitektoak eta Hirigintzako Administrazio Orokorreko Teknikariak 2022ko urriaren 4ean egindako txostenak.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Batzordearen 2022/10/13 datako irizpena.

Verdasco jaunak, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on, muy buenas tardes. El Plan Especial que traemos a la aprobación por parte del pleno se aprobó con carácter inicial el pasado 22 de noviembre. Fue sometido a exposición pública en el Boletín Oficial de Guipúzcoa, así como en los diarios Berria y Diario Vasco, y en el tablón de anuncios del propio Ayuntamiento. Fue remitido a URA para que emitiera el correspondiente informe preceptivo. Fue recibido de un sentido favorable, y el pasado mes de julio la promotora presentó el texto refundido correspondiente al plan especial, recogiendo las condiciones establecidas por el ayuntamiento. Cuenta tanto con los informes favorables del arquitecto municipal como del técnico de la administración general de urbanismo y servicios. Y sometemos, en tal caso, a aprobación definitiva del citado plan especial.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andreak eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Behin betiko izaeraz onestea URMENA SL enpresaren izenean diharduen Iñaki EZKAI ORMAZABAL jaunak 2020ko apirilaren 27an aurkeztu zuen Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokoreko HEA 1 - Alde zaharra eremuko AI-1.14 azpieroemuari dagokion Hiri-antolamenduko Plan Bereziaren Testu Bateratua, José Manuel Muñagorri Palá arkitektoak eta Carlos Sanz Azpiazu abokatuak, 2022ko apirilean idatzia.

2.- Erabaki hau, Hiri-antolamenduko Plan Bereziarekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, erregistroan gordailatu dezaten, Ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 89.3 artikuluari jarraiki.

3.- Behin betiko onespenez erabaki hau, aipatu Hiri-antolamenduko Plan Bereziko hirigintza-araudiarekin eta ordenantzekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4.- Erabaki hau jakinaraztea URMENA SL enpresaren izen eta ordezkapenean jarduten duen Iñaki EZKAI ORMAZABAL, nola baita ere administrazio-espeditentean interesatu gisa agertzen diren beste guztiei. Jakinarazpenean azalduko zaie, halaber, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkez dezaketela Bilbon dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean, akordioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik bi hilabeteko epean.

5.- Erabaki honen berri ematea Errenta eta Ordainarazpen lansailari.

3. 2023. urterako auto-taxien hiri-tarifak onartzea.

Ikusirik, Udalbatzak, 2007ko otsailaren 16an hartutako seigarren erabakiaren bitartez, Andoingo Udalak Buruntzaldean auto-taxi garraio-zerbitzuaren araubide bereziko zonaldea ezartzeko lankidetzahitzarmenera atxikitzea onartu zuela, lankidetzahitzarmena aurrez Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbilgo Udalek sinaturik baitzeukaten.

Ikusirik, hitzarmen horren helburuak hauek direla: eskualderako garraio-zerbitzu koordinatua abiaraztea, eskualde barrua modalitate guztietako taxi-zerbitzuak bermatuz, eskualdean dagoen herri bakoitzeko eskariaren eta eskaintzaren arteko desoreka positibo nahiz negatiboak murriztuz eskualdeko baliabideen arazoizko erabileraren bitartez, eta batetik taxi zerbitzuaren kalitatea hobetuko duen eta bestetik sektoreko profesionalen lan-baldintzak hobetuko dituen eraginkortasuna bilatzea.

Ikusirik, Lurralde Antolaketarako eta Sustapenerako Diputatuak 2007ko maiatzaren 29an emandako Foru Aginduen bitartez, turismo ibilgailuetan bidaiarien herri barruko edo herri arteko garraio publikoaren zerbitzua eskaintzeko Buruntzaldeko araubide bereziko eremuaren sorrera onartu zuen. Aginduan esaten da Buruntzaldeko eremu bereziko udalherri guztietan (Andoain, Astigarraga, Hemani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) tarifa bera ezarriko dela zerbitzuaren arabera.

Aintzat harturik, hiri-garraioaren eremuaren barruan, udalei dagokiela tarifak finkatzea prezioen kontrolari buruzko legerian xedatutakoari jarraiki, bidaiarien automobil bidezko hiri-barruko eta



hiriarteko garraio publikoari buruzko ekainaren 29ko 2/2000 Legearen 3. artikuluko hirugarren paragrafoan xedatu bezala.

Aintza harturik, bidaiarien auto-taxi bidezko hiri-barruko garraioaren prezioak prezioen kontrolari buruzko araudiari lotuta daudela, Autonomia Erkidegoaren eremuko "prezio baimenduen" modalitatean hain zuzen ere. Autonomia Erkidego honetan ahalmen hori Euskadiko Prezioen Batzordeari dagokio, otsailaren 2ko 35/2010 Dekretuaren eta 2010eko ekainaren 15eko Aginduaren arabera.

Aintzat harturik, baimendutako prezioak eta jakinarazitako prezioak berrikusteko prozedura Ekonomia eta Ogasun Sailburuak 2010eko ekainaren 15ean emandako Aginduaren bitartez onartu zela.

Aintzat harturik, Buruntzaldeko Taxien Batzordeak, 2022ko urriaren 10ean izandako bileran, aho batez, AGITAX-ek aurkeztutako proposamena onartu zuela eta, ondorioz tarifak %10,5 igotzea erabaki zuela batzordeak, eskaerarekin batera aurkeztutako azterketa ekonomikoan esandakoaren arabera.

Ikusirik Hirigintza eta Zerbitzu Administrazio Orokorreko teknikariak 2022ko urriaren 10ean egindako aldeko txostena.

Ikusirik, Zerbitzuetako Batzordeak 2022ko urriaren 17ako bileran emandako aldeko irizpena.

Izagirre andreak, zerbitzuetako zinegotzi ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

"Bai, bueno hau urteroko gai bat da. Dakizuen bezala, Buruntzaldeko Taxi Batzorde bat dago eta bertan onartzen dira, sei herrien artean, igoera zenbatekoa izan behar duen. Taxi elkarte den aldetik, %10,5 eta %10,8ko igoera proposatuta zeuden eta aho batez eta salbuespen gisa, onartu zen Buruntzaldeko Taxi Batzordean. Bi mila eta hogeita hirurako, %10,5eko igoera."

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andreak eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- 2023. urterako auto-taxi zerbitzuaren hiri-tarifak onartzea, ondoren zehazten den bezala, onartutako kopuruan Balio Erantsiaren zerga barne dagoelarik. Onartutako tarifak hauexek dira:

BURUNTZALDEA					
PROPUESTA TARIFA URBANA AÑO 2023					
2023. URTERAKO HIRI BARRUKO TARIFA PROPOSAMENA					
TARIFA 1*			TARIFA 2**		
Tarifa Mínima	Kilómetro recorrido	Hora de espera	Tarifa Mínima (3)	Kilómetro recorrido	Hora de espera
Gutxiena	Egindako kilometroa	Itxaron ordua	Gutxiena	Egindako kilometroa	Itxaron ordua
6,0993	1,2967	24,8831	7,2700	2,0771	39,1061

La Tarifa Mínima incluye 1,5 km de recorrido o cinco minutos de espera.

(*) Esta tarifa será aplicable los días laborables entre las 07:00 horas y las 22:00 horas.

(**) Esta tarifa será aplicable todos los días, desde las 22:00 horas hasta las 07:00 horas. Se aplicará igualmente la Tarifa II desde las 07:00 horas a las 22:00 horas los domingos y los días festivos fijados en la correspondiente normativa autonómica y local, así como los sábados y los días 24 de diciembre y 31 de diciembre.

2.- Tarifak onartuak izan ondoren, espediente administratiboa eta hartutako erabakiaren ziurtagiria, udal idazkariak emandakoa, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritzara bidali beharko da, hark Euskadiko Prezioen Batzordeari bidal diezaion



4. Andoainen bidaiarien hiri garraio zerbitzuaren esleipen-prezioa osatzeko proposamena.

Ikusirik, Alkatetzak, 2013ko uztailaren 30eko data duen 568/2013 zenbakiko ebazpenaren bidez, Andoainen hiri barruko bidaiarien garraio zerbitzua emateko kontratua Autocares Urpa SL enpresari esleitu zola, horretarako bat etorri 2013eko maiatzaren 7ko dataz onartu ziren Administrazio Baldintza Berezien Agirian eta Jarraipide Teknikoen Agirian xedatutakoarekin, eta aipatu ebazpena Osoko Udalbatzak berretsi egin zuela 2013eko irailaren 26ko datan egin zuen osoko batzarraldian. Kontratuen benetako prezioa 45.823 €-koa da, horri gehituz BEZagatik 4.582 €-ko dirukopurua.

Ikusirik, 2013ko irailaren 1eko dataz herri zerbitzuak kudeatzeko esleipenari zegokion administrazio kontratua sinatu zela, 10 urteko indarraldirako.

Ikusirik, 2022ko abuztuaren 19an Autocares Urpa S.L.-k Udal honen aurrean aurkeztu duela Andoingo bidaztien hiri barruko garraio zerbitzua aztertzeari buruz zerbitzualdi horretako bederatzigarren urteari dagokion jarduketa txostena.

Aintzat izanik, zerbitzuaren esleipena arautu zuen Baldintza Teknikoan Agiriko bigarren baldintzak ezartzen duela kontzesiodunak, zerbitzuaren lehenengo urtetik aurrera, eta iragandako urtearen hurrengo urteko lehenengo hilabetez zehar urteko balantzea aurkeztu beharko duela jardueraren emaitza ekonomikoen kontu osoa azalduz, galdu-irabazien kontuak aditzera emanez eta urtealdiaren gaineko oroitidazkia edo txostena aurkeztuz. Diru-galera ematen duen kontzesioa izanik, Udalak, kontzesiodun enpresari urtero diru-laguntza emanez, diru-sarrerak osatu egingo ditu horrela kontzesioaren oreka ekonomikoa lortuz. Diru-laguntzaren zenbatekoa urtero berrikusiko da behin esleipenaren lehenengo urtealdi osoa igaro ondoren, horretarako kalkulua eginez esleipendunaren proposamen ekonomikoan jasotako datuen gainean, hots, ustiapen kostuen gehi industria irabazien batura zatituz txartelaren salneurria bider aurreko urtean izandako bidaiari kopuruaren emaitzaren artean.

Ikusi ondoren Ingurumen teknikariak 2022ko urriaren 10ean emandako aldeko txostena, non adierazten baita, kontzesiodunak aurkezturiko datuak aztertu izanaren ondorioz, Andoingo hiri barruko bidaztien garraioak, hiribus ere deiturikoa, zerbitzuaren jarduneko zortzigarren urtean agertzen duen desoreka ekonomikoa diru-sarreraren ataletik datorrela, zeren eta hasieran zenbatetsitako bidazti kopuruan baino erabiltzaile gutxiago izan baita, zerbitzuaren esleipen prezioa 25.288,83 eurotan osatu behar da, eta, horrenbestez, ekitaldi barrirako zerbitzuaren esleipen prezioa 68.813,48 eurotan finkatuko da, horri gehituz BEZari dagozkion 6.881,35 euro gehiago.

Ikusirik, era berean, hirigintza eta zerbitzuetako administrazio orokorreko teknikariak 2022ko urriaren 10an egindako aldeko txostena.

Ikusirik, azkenik, Zerbitzuetarako Batzorde Informatzaileak 2022ko urriaren 17ko bileran emandako aldeko irizpena.

Izagirre andreak, zerbitzuetako zinegotzi ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, bueno hau ere urtero errepikatzen den gai bat da eta aurten proposatzen den gastua osatzea da, 68.813,48 euroko kopurua.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Andoingo hiri barruko bidaiarien garraio zerbitzuaren esleipen prezioa 25.288,83 eurotan osatzea, kontzesioan gertaturiko desoreka ekonomikoa berdintzearen eta, horrenbestez, ekitaldi berrirako zerbitzuaren esleipen prezioa 68.813,48 eurotan finkatuko da, horri gehituz BEZari dagozkion 6.881,35 euro gehiago. Prezio hori kontzesiodunari ordainduko zaio behin zerbitzuari dagokion xeheturiko faktura aurkeztu ondoren.

2.- Erabakia jakinaraztea Autocares Urpa S.L. enpresari.

3.- Erabaki honen berri ematea Udaleko Kontuhartzaitza lansailari.

5. 2022/8 zk.ko kreditu aldaketa espedientea onartzeko proposamena.



“Kreditu gehigarrien (Sarekon 2022-KALD-000012) bidezko kreditu aldaketaren 2022/08 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena”

Besteak beste, kontuan izanda:

- Hezkuntza eta Kultura Batzorde Informatzaileak 2022.10.05ean emandako aldeko proposamena (Bai: PSE-EE eta EAJ-PNV; Ez: Elkarrekin Podemos; Abs: EH-Bildu)
- Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Batzorde Informatzaileak 2022.10.13an emandako aldeko proposamena (Aho batez).
- Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak 2022.10.17an emandako aldeko proposamena (Bai: PSE-EE, EAJ-PNV eta Elkarrekin Podemos; Ez: EH-Bildu).
- Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria Batzorde Informatzaileak 2022.10.17an emandako aldeko proposamenak (Bai: PSE-EE, EAJ-PNV eta Elkarrekin Podemos; Ez: EH-Bildu).
- 2022.10.17ko Kontu-hartzailearen txostena (2022 aurrekontuaren exekuzioa, Pertsonal gastuak I. kapitulua, erabilitako diruzaintza gerakina, krediturik dauden aplikazioak, proposatzen diren aldaketak).

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2022/08 zenbakiko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoak.

Kontuhartzaileak informatzen du Ogasun Batzordean Zerbitzuetako proposamenean baliogabetzeagatik bajaren teknikariaren txostena ez dagoela.

Hala ere, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2022/10/18ko bileran, aldeko irizpena eman du.

Alkate andreak hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Bai, kasu honetan kreditu gehikuntza bat da eta bost zatitan banatuko dugu, batzorde ezberdinetik etortzen baitira. Ondo iruditzen bazaizue eta Bozeramaileen Batzordean horrela gelditu ginen, esplikatuko ditut bostak eta gero eztabaidarekin hasiko gara eta ondoren bozka egingo genuke.

“Decíamos que se trata de un crédito adicional que sale del remanente, que se va a hacer en cinco partes, porque vienen de cinco comisiones diferentes y así se quedó en la Junta de Portavoces. Si os parece lo primero que se hará será explicarlos los cinco en qué consisten.

“Daremos pase al debate y luego ya se procederá a la votación en cinco bloques.

“Kontuan, hau esanda, batetik, izango litzateke Hezkuntza eta Kulturako 50.000 eurokoa. Bastero kulturaguneko laguntza teknikoa errefortzatzeko.

“Por un lado, tendríamos el apartado de la Comisión de Educación y Cultura, y sería un crédito adicional de 50.000 euros para la ayuda técnica de Bastero Kulturagunean.

“Bestetik, Hirigintzatik izango litzateke 280.000 eurokoa. PAES zaintzako. Por parte de la Comisión de Urbanismo sería dotar una partida de 280.000 euros para poder dar continuidad a la actuación del Plan de Acción de Energético de Energía, que es el que conocemos por PAES.

“Bestetik, Zerbitzuetako Batzordea. Zenbait kontzeptu daude eta bueno denok dituzue. Batetik, Basogintzako hornidurak, festetako komunak alokairuak, erregaiak, tresneria, Ur Kontsortzioa, seinaleztapen bertikala, festetako garbiketak, Gabonetako argiak eta gero, barredora elektrikoa kentzea, daukan dirukopuru hau ematea Leizotz ur horniketarentzako. Decíamos que en la Comisión de Servicios hay diferentes partidas, que serían suministros forestales, alquiler de baños para fiestas, combustibles, herramientas para la Brigada, Consorcio de Aguas, señalización vertical, limpieza de fiestas, las luces de Navidad, quitar una de las partidas que se pusieron para la barredora eléctrica y dar ese importe al suministro Agua Leizotz.

“Lugarrenik, enplegu sailetik, batetik izango lirateke gazteria saileko ekintzak, 15.000 euro.

Por parte de la Comisión de Empleo. Sería, por un lado, actividades dirigidas hacia la juventud. 15.000 euros. Bestetik, Urigain etxeko leihoak aldatzeko berrogei mila euro. Para cambiar las ventanas de Urigain, 40.000 euros. Leizaran Bisitarien Etxearen alarma sistema aldatzeko, 3.300 euro. Para cambiar el sistema de alarma en la Casa de visitantes de Leizaran, 3300 euros. Kazeta Gunearen egokitzapena, ekipamendua, 2.800 euro. 2.800 euros para el equipamiento y la adecuación de Kazeta Gunea. Eta bukatzeko, Otietako lur eremua erosteko 12.500 euro. 12.500 euros para la compra de un terreno en Otita.



“Eta bukatzeko, ba deitzen dioguna, besteak edo hemen bueno txostenean aipatu zen bezala, gauza batzuk daude. Beterriko, likidazioa, Enpleguko zenbait programa, energia, erregaia eta argindarra izango lirateke.

“Luego tenemos un capítulo de otros que hay un informe en el que se detallan que todos disponen de él y que conllevaría pues la liquidación de Beterri, varios programas de empleo y luego ya, bueno, pues, suministros de energía eléctrica y combustible.

“Horiek izango lirateke atalez atal aipatutako kreditu eraikuntzak. Estas serían los cinco bloques de créditos adicionales.”

Alkate andreak gaia eztabaidara jarri du eta lehenbizi, Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on denei. Gaurkoan saila ezberdinetako kreditu aldaketak datoz bozkatzeko eta sailez-sail gure iritzia emango dugun arren eta banaka bozkatuko ditugun arren, irakurketa orokor bat egitea gustatuko litzaiguke kreditu aldaketen inguruan.

“Jakina da aurrekontuak onartzen direnean, urtea amaitzerako sail ezberdinetan aldaketak egon daitezkeela, baina gure ustez, kasu honetan ez dago ez bide orririk, ez dago estrategia bateraturik, eta etengabe ari zarete gauzak aldatzen eta etengabe ari zarete inprobisatzen.

“Horretarako adibide batzuk jarriko ditut. Alde batetik, Otitako lur eremuaren erosketaren gaiarekin, guk gai horren inguruan zalantza asko ditugu, gaia bera ez delako bere osotasunean proposatzen, ez. Orain bat-batean enplegutik proposatzen zaiguna da terreno zati hori erosi egin behar dela eta 12.000 euroko kreditu modifikatibo bat egin behar dela.

“Baina duela hilabete batzuk udal gobernu honetatik, beste sail batetik, Hirigintzatik, proposatzen zen permuta bat egitea, hau da, partzela bat beste partzela batengatik aldatzea, eta kasu hartan guk zalantzak asko genituela esan genuen eta entzun behar izan genituen, baina lortu zen hitzarmen hori atzera botatzea eta permutaren gaia, gaiari buelta bat ematea lortu genuen. Orain dator, berriz, beste sail batetik, esan dugun bezala, lur eremu hori erosi egin behar dela esanez.

“Guk gai honen inguruan bai esan dugula, behin baino gehiagotan, aurreko agintaldian ere esan zuten nire taldekideek. Gu jardueraren aurka ez gaude, baina titularitatearekin arazoak ikusten ditugu. Eta batez ere ikusten duguna da, eremu horrek, osatutako eremu horrek estrategia orokor bat behar du, da orokor bat, estrategia orokor bat behar da eta ezin gara ibili egun batean hirigintzari gauza bat proposatzen eta bestetik, enplegutik beste gauza bat proposatzen.

“Bai gai honen inguruan, bai aparkalekuen inguruan, honek estrategia bateratu bat eta orokor bat behar du. Eta guk horregatik esaten dugu, ezin dugu onartu egun batean, orain dela hilabete batzuk, sail batetik hitzarmena proposatzea eta handik hilabete gutxira beste sail batek, kasu honetan Enpleguak, partzela erostea proposatzea, zeren partzela erosi behar baldin bada, gure galdera da. Zergatik ez da etxea erosten, zergatik ez da espropiatzen? Horregatik esaten dugu gai honek estrategia bateratu bat, eta ezin dugu da sail bakoitza bere proposamen ezberdinarekin ibili, honek eskatzen duena, udalaren aldetik estrategia bateratu bat.

“Gero dago beste adibide bat. Leizotzeko proiektua, guk Leizotzeko proiektuarekin ados gaude. Duela hilabete batzuk, maiatzean, maiatzeko udalbatzan jasotzeko proiekturako 700.000 euroko kreditu modifikatibo bat ekarri zenuten, eta guk esaten genuen, baina zergatik ekartzen duzue orain? Proiektua ez baldin badago bukatuta eta ez baldin badakigu zenbatekoa den. Baina zehazki hauxe esaten genuen. Leizotzeko ur sarea berritzeko 750.000 euroko kreditua aldaketa proposatzen da eta kale garbitzaile elektrikorako 350.000 euro. Eta ez kasu batean eta ez bestean ez dugu aurrekonturik. Ez dakigu zergatik jartzen diren kopuru horiek aurrekonturik eduki ezean.

“Eta hori ekiditeko, hau da, aurrekontua, eskatzen genuen aurrekontuan jakiten ditugunean kopuru zehatz hori jartzea. Eta orain, ba, guk maiatzean esandako horrek arrazoi ematen digu. Hau da, orain maiatzean ekarri ziren 700.000 euro Leizotzeko ur hornidurarako kreditu modifikatibo bezala eta 340.000 euro barredora erosteko. Eta orain esaten zaiguna da 340.000 euro barredora erosteko zirenak, ez dugu barredora erosteko, eta erabiliko dugu diru hori Leizotzerako proiektua milioi bat kostatzen zaigu eta milioi hori pagatzeko. Gainera, gogoratu behar dugu proiektu hori aurkeztu da, baina proiektu hori dago,



guk dakigula behintzat bukatze bukatu gabe eta onartzeko, pasa den astean egon zen batzordean guri esan zitzaiguna zen proiektu hori bukatzeko dago aurkeztuta, baina ez dago proiektua bukatuta eta ez dago onartuta. Orduan, ba guk lan egiteko modu horrekin ez dugu bat egiten. Orain esaten zaiguna da, ez, barredora, hori erosiko da 2023an, 2023ko aurrekontuetan sartuko dugu eta orduan erosiko da. Eta hori berdina gertatu zen Karrika-Sorabillako ur hoditeriarekin eta beste hainbat gauzarekin. Orduan, guk lan egiteko funtzionamendu hori ezin diegu eta etengabeko inprobisazio hau ezin dugu babestu, ezin dugu babestu maiatzean aldaketa batzuk proposatzea, hemen udalbatza honek onartzea eta maiatzean onartutakoak urrian ez balio izatea.”

Jarraian, Izagirre andreak, zerbitzuetako zinegotzi ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bale. Arratsalde on. Bueno, ez dago estrategiarik. hori aipatzen duzue behin eta berriro eta berriro. Hitzarmena zuek geldiarazi zenuten. Lehenik esaten zen permuta bat egin behar zela eta orain, _resulta que_ erosketa egin behar da. Zergatik ez da espropiatzen etxea?”

“Ba nik galderak zuengana begiratu niretzat. Etxe hori erosi zen garaian zuek zineten Gobernuan. Zergatik ez zenuten erosi orduan? Estrategia baldin bazenuten, zergatik ez zenuten garai hartan erosi? Eta estrategia finkatuta egongo zen, garbi asko. Ez. Pertsona pribatu batek erosi zuen eta pertsona pribatu horrek zuekin negoziaketetan egon zan gero zer gertatu den inork ez daki, zuek bakarrik jakingo duzue. Hori, batetik, etxearekiko, bestea terrenoa. Permuta egin behar zen. Zuek ez zenuten gelditu. Sail eta udaletxeko teknikoak esan ziguten permuta ezin zela egin nolana, hor tasazio bat egin behar zela eta tasazio horren arabera ikusiko zela permuta bideragarria zen ala ez. Eta nola gauzak gertatzen diren, ba tasazioa egin zen, eta tasazioa ehuneko berrogeia baino gehiago denez balioa, terreno batena eta bestearena, permuta ezin da egin. Baina garbi daukagu terreno hiruki hori Udalarena izan behar duela. Orduan, zer egin behar dugu? Guk egin duguna da erosteko proposamena. Pertsona horrekin eseriko gara alde aurretik, diruz hornituko dugu partida eta negoziatuko dugu terreno hori erosteko. Hori da jokabidea. Hori da gaizki egiten ditugun gauza guztiak. Halaxe dira.”

“Ur horniketari buruz, bai, lehenik etorri zan aurreikuspen bat 750.000 eurokoa, ze aurreikusi genuen igoera bat 2008an edo 2010an egin zen proiektuaren ingurukoa. Aurreikuspen bat, ikusita prezioak zein gorabeherak zituzten. Gauza da gero hasi garenean proiektua garatzen, herritarrekin eseri garenean eta ikusi dugunean ze eskari ditugun, horrek ekarri digu proiektua handitzea. Eta ez handitzea bakarrik, pixka, ez. Proiektuari ia beste adar bat sortzen zaio, zeukan adar batetik beste adar bat sortzen zaio eta ura joaten da Olazar auzoraino eta hartzen ditu Olazarko etxebizitzak, aspalditik, ur sareko ura eskatzen dutenak, aspalditik. Eta hortik dator aurrekontua berrikusi behar izatea eta aurrekontua moldatu behar izatea proiektua aurrera ateratzeko, ze lehentasuna guretzako da auzo guztietan zerbitzuen oreka lortzea eta zerbitzu berdintsuak edo berdinak ematea. Eta horregatik lehenetsi dugu Leizotzeko ur sarearen proiektua barredoraren erosketa baino. Eta bai, garbi esan dugu barredora den erosketa 2023ko aurrekontuetara eramango dugu. Besterik ez. Baina ez dut uste gure jokabidea okerra izan denik. Uste dut zuzen goazela eta gauzak, gauza eta arazoz arazo, ari gara gauzak aurrera ateratzen. Eta horixe izan da aipatu dituzun bi gai horietan gertatu dena.”

Berriro ere, Alvarez jaunak, hartu du hitza, honakoa erantzuteko:

“Ez dut gehiegi luzatu nahi baino, guk esaten dugunean, maiatzean, egin ezazue proiektua eta proiektua bukatua dagoenean, orduan egin kopuru zehatzarekin kreditu aldaketa. Eta ez, ez da egiten, ekartzen dira bi, bi gauzak ekartzen dira maiatzean aldaketarako eta gero maiatzekoa berriro aldatu behar da, urrian, hortan ari gara horretan esaten ari gara estrategia falta dago da, zeren guk esaten genuen beste da maiatzean esan genuen bezala, proiektua bukatzean ekarri bazan kreditu aldaketa, barredora ez zen iragarriko edo ez dakit zer gertatuko zen baino, egin duzue da barredora iragarri orain atzeratu. Eta hori da estrategia falta. Hori da esaten ari garena. Guk esaten duguna da, egin itzazue kreditu aldaketak proiektua bukatuta daudenean, kopuru zehatzekin. Horixe da.”

Izagirre andreak erantzuten du:

“Bale. Nire ez naiz gehiegi luzatuko, adibide bakar bat jarriko dizut. Aurreko legealdian egin zen artxiboa. Estrategia falta egongo zan, ze hemen aurkeztu zen aurrekontuaren bikoitza ordaindu behar izan zen eta hemen esan zen aldaketak zerbait ona egiteko eta onuradunak izango ba izango balira,



aldaketak egin behar zirela, berdina esaten dizut. Leizotzeko proiektuarekin berdin-berdin gertatu da. Aldaketak egon dira, aldaketa onak izan dira, gehienbat herritarrentzat. Eta hortik dator gaurko kreditu modifikazioa.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, yo con las modificaciones de crédito es de sobra sabido lo que pienso, que hay cosas que se podían haber previsto, hay otras cosas que no. Entiendo que aquí pues hay cosas que se podían haber previsto. Entiendo que en todos estos modificados de crédito pues hay cosas que se podían haber previsto y cosas que no. A ver, desde nuestro grupo no vamos a poner ningún impedimento, como lo hemos dicho, porque bueno tampoco pensamos que son cosas que se salgan un poco. Sí que en Cultura nos parecía que todos estos servicios que se dan que ahora que haya que poner dinero para que se llegue a fin de año, porque la partida no llega, que ha sido una falta de previsión total, igual que en muchas cosas, sí que es verdad que nosotras entendemos, pues porque, por ejemplo, podemos pensar por qué no sé, se hizo una previsión de que había que cambiar las ventanas de Urigain, no. Pero bueno ahora, teniendo en cuenta lo que viene y que la eficiencia energética va a ser considerable, y vamos a decir que vamos a aceptar pulpo como animal de compañía, un poco, teniendo en cuenta todas esas cosas, que va a ser más el beneficio, es por eso que no nos vamos a oponer.”

Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Irizpenemalaren proposamenean jasotzen diren bost atalak banan bana jarri ditu bozketara.

Lehenbizi, Hezkuntza eta Kultura Batzordearen proposamena bozketara jarri da eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andreak eta PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bildu udal taldeko zinegotzien abstentzioarekin, onartu du.

Jarraian, Hirigintza, Obra, Ingurumena eta Landaguneko Batzordearen proposamena bozketara jarri da eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate andreak eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu, eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, onartu du.

Jarraian, Zerbitzuetako Batzordearen proposamena bozketara jarri da eta Osoko Udalbatzak, gehiengoz, Alkate andreak eta PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bildu udal taldeko zinegotzien kontrako botoekin, onartu du.

Jarraian, Sustapen Ekonomikoa, Enplegu eta Gazteriako batzordearen proposamena bozketara jarri da eta Osoko Udalbatzak, gehiengoz, Alkate andreak eta PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bildu udal taldeko zinegotzien kontrako botoekin, onartu du.

Azkenik, bosgarren atalean jasotako proposamena jarri da bozketara eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate andreak eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, onartu du.

Beraz, jasotako bozketen emaitzaren ondorioz, honakoa erabaki da:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2022/08 espedientea, kreditu gehigarrien (2022-KALD-000012-00) modalitatekoak, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulakako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
1	PERSONAL GASTUAK	41.629,74
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	597.920,88
6	INBERTSIO ERREALAK	678.610,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		1.318.160,62



FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
6 (GASTUAK)	INBERTSIO ERREALAK	(-)340.010,00
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	978.150,62
GUZTIRA		1.318.160,62

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

6. Konpromiso-kreditua onartzeko proposamena.

2021.05.20ko 891/2022 Alkatezaren Ebazpenaren bidez, 1/2022 zenbakiko kreditua aldatzeko espedientea onartu zen, sartutako kredituen modalitatean. Eta erreferentziako gastuari dagokion partida gehitu da:

- 1.800.622.237.20.1 2021 (467) LUDOTEKA BELABI 237.773,80.- €

2021.01.15ean hasi zen 2021AKM60002 espedientea, "Ludoteka bat Andoingo Belabi kaleko 7. zenbakiko beheko solairuan dagoen lokala atontzeko obrak". Zenbatekoa, guztira: 237.773,80.- €. Prozedura hau eman gabe geratzen da (Tokiko Gobernu Batzarra 2022.03.4).

2022.05.26an, Udalbatzak 3/2022 zenbakiarekin identifikatutako kreditua aldatzeko espedientea onartu zuen. Espediente horretan, besteak beste, indarrean dagoen udal-aurrekontuan partida berri bat sortzea erabaki zen (2022.01.27an onartua):

- 1.0800.622.237.20.01 2022 (591) LUDOTEKA BELABI 75.000,00.- €

2022.07.20an, 2022AKN60001 espedientea hasi zen, Belabiko ludotekaren plegua onartzeari dagokiona; 312.772,90 €-ko zenbatekoa du, eta 3. gutunazala 2022.010.18rako irekitzea aurreikusi da.

Jakinik Belabiko Ludotekaren plegua onartzeari dagokion 2022AKN60001 espedientearen esleipena gutxienez urriaren amaierara arte atzeratu daitekeela.

Kontuan izanik 237.773,80 €ko partida 2021etik 2022ra bitarteko aurrekontutik sartutako kreditua dela, eta ezin dela ekitaldi bat baino gehiago txertatu.

Kontuan harturik udal Kontuhartzaileak 2022.07.28an egindako txostenean jasotakoa, Belabi Ludotekaren plegua onartzeari buruzkoan, 2022AKN60001 espedientearen arabera.

Ekonomia Sustapen, Enplegu eta Gazteria Batzordeak 2022-10-06an emandako aldeko irizpena aztertu da.

Ikusirik, Ekonomia, Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordeak, 2022.010.18 datako irizpena.

Izagirre andreak, zerbitzuetako zinegotzi ahalduak, hartu du hitza, honakoa esateko:

"Konpromiso kreditua dator ludotekaren eraikuntzarako. 2021eko kreditu bat zen 237.773,80 eurotako partida bat zen, 2021ean gastatu ez zena eta 2022ra pasa genuen, gauza da lizitazioa martxan jarri zen, desierto geratu zen, bigarren aldi batez lizitazioa martxan jarri behar izan dugu, partida honen kopurua beste 75.000 euro gehituz eta orain, ezinezkoa denez 2021ko partida bat 2023ra pasa, ba, konpromisu kreditu bat onartzera ekartzen dugu udalbatza honetara, 2023ko aurrekontuetan hori agertzeko eta ludotekaren eraikuntzarekin aurrera egin ahal izateko."

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

- 1.- 2021etik 2022ra txertatutako partidari baja ematea.
- 2.- 2023rako konpromiso-kreditua onartzea:
 - 2022ko partida: 75.000,00 €
 - Etorkizuneko partida (2023): 237.773,80 €.



7. Andoingo Udalaren jardunean genero-zeharkakotasunaren estrategia txertatzeko proposamena.

Kontuan hartuta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoak ezartzen duela berdintasun-printzipioa administrazioaren jarduera guztietan txertatu behar dela, bai aurrekontuetan, bai arauetan, planetan, ekintzetan eta abarretan.

Kontuan hartuta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak azpimarratzen duela administrazio publikoen esku-hartzea genero-ikuspegiak zeharkatu behar duela, maila guztietan eta eremu guztietan, bai plangintzan, bai informazioaren tratamenduan, bai arau-ekintzaren prestakuntzan eta esku-hartzean.

Kontuan hartuta martxoaren 3ko 1/2022 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenez aldatzen duenak, arauaren aplikazio-eremua zabaltzen duela, eta, gainera, toki-administrazioak bere arauak egingo dituela, lege honetan eta legea garatzeko arauetan jasotako agindu orokorrak zehazteko eta lurraldeetako errealiterara egokitzeko.

Kontuan hartuta Andoingo udalerrak III. Berdintasun Plana onartu zuela 2020an, 1. ardatzean Gobernu Onaren alde egiten duena, eta ardatz horretan, hainbat programaren bidez, genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna lehenesten dela.

Kontuan hartuta 2017ko maiatzaren 25ean Udalaren Osoko Bilkurak konpromiso esplizitu bat onartu zuela genero-zeharkakotasun estrategia bat garatzeko, udal-kudeaketari lotutako prozesu komunak zein politika sektorialak eraldatzen joateko.

Kontuan hartuta konpromiso hori azken urteotan hainbat lan-programaren bidez garatu dela.

Kontuan hartuta prozesu honetan fase berri bati ekiteko oinarriak ezarri direla eta hartutako konpromisoa berri behar dela egindako aldaketak araupetzeko fase bati ekiteko.

Ikusirik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna Batzordearen 2022/10/26 datako irizpena.

Romero andreak, emakumeen eta gizonen berdintasuneko zinegotzi ahaldunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kaixo. Arratsalde on guztioi. Puntu honetan udalak Mainstreaming lanaren inguruan aurreko legegintzaldian hartutako konpromezuak berretsi ditu. 2017ko maiatzean udalak ageriko konpromezua hartu zuen, bai maila teknikoan, bai politikoan, generoa mainstreamineko estrategia bat garatzeko.

“Estrategia horrek, udal kudeaketari lotutako prozesu elkarrekikoak nahiz sektore politikak eraldatu ditu, era guztietako eta maila guztietako helburu estrategikotzat emakumeen eta gizonen berdintasuna jarritz.

“Konpromiso hori da agiri honekin berri nahi dena, Andoingo udalak amaitutzat eman baitu mainstreaming abian jartzeko lehen fasea eta bigarren faseari ekingo diogu jardunbide berrien arautzeari lehentasuna emango diona.

“Decía que lo que se trae en este punto al pleno es la ratificación de unos compromisos que ya se adquirieron por este ayuntamiento en la legislatura, concretamente en mayo de 2017, para el trabajo en torno al mainstreaming. En mayo de 2017 el ayuntamiento adquiere un compromiso explícito tanto a nivel técnico como a nivel político, hacia el desarrollo de una estrategia de mainstreaming de género que vaya transformando los procesos comunes ligados a la gestión municipal, como a las políticas sectoriales poniendo como objetivo estratégico de todas las áreas y a todos los niveles la igualdad de mujeres y hombres.

“Es aquel compromiso el que se trae hoy a ratificar, ya que se daría por finalizada la primera fase que sería la implantación del trabajo de mainstreaming como tal y comenzaría la segunda fase que dará prioridad a la regulación de los nuevos procedimientos ya adquiridos por los departamentos en los que se ha trabajado este tema. Gracias.”

Alkate andreak gaia eztabaidara jarri du eta lehenbizi, Mujika andreak, EH Bilduko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Guk, besterik gabe, azpimarratu nahiko genuke konpromiso hau berresteak daukan garrantzia, zer lerrotasunean, berdintasunaren bidean, urratsak indartzeko balioko duelako eta gainera, azpimagarria da ere 2017an, aipatu den onartutako konpromezu horretan alderdi sozialistak ez zuen bozketan parte hartu,



beraz, ez geunden akordio politiko horretan alderdi guztiak, beraz, garrantzi handiagoa du, gure ustez, aho batez, onartua izateak.”

Romero andreak, erantzuten du:

“Bueno, solo darle la importancia que se da siempre en todos los temas al relato y, quiere explicar, aquí se ha dicho que el partido socialista no votó ese punto en 2017, efectivamente, no lo votó, pero no porque no quisiera votar ese punto, el partido socialista en ese pleno se levantó en otro punto y por otro motivo, por lo tanto, dejar claro que no es no votara porque no quiso en este punto, hay que contar el relato siempre en su totalidad, no parcialmente. Gracias.”

Mujika andreak erantzuten du:

“Bai, bai eta ez, ez, nik kontatu dut den bezala eta aktak hor daude, hemen alderdi bakoitzak erabakitzen du noiz altxatzen den pleno batetatik, noiz den akordio politiko bat estrategikoa bere alderdiarentzat eta ni ere ez naiz luzatuko, baina, hori horrela izan zen, jakinik akordio politiko bat gai horren inguruan hausnartzen eta lantzen aritu ginela denboran zehar eta adostasun batzuetara iritsi ginela, zuek erabakita zenuten plenotik joatea, jakinik hurrengo puntuan, hau bozkatuko zela, hor bitarte, bakoitzak atera ditzala nahi dituen ondorioak.”

Romero andreak, erantzuten du:

“Yo tampoco me quiero extender mucho, pero vuelvo a reafirmarme en lo que he dicho y por eso lo he contado, porque no se puede dejar aquí en el aire, que el partido socialista no voto el punto, tal y cual, pues no lo voto, porque no lo voto, por las razones que he dado. Gracias.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andreaken eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

- 1.- Mainstreaming estrategia ezartzeko erabaki-proposamena berrestea.
- 2.- Erabaki hau Idazkaritzari helaraztea.

8. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 1701/2022 zenbakidunetik 1919/2022 zenbakidunera.

Alkateak zinegotzi guztiari jakinarazi die Alkatezaren ebazpenak, nahiz eta edukiaren berri izan Udalbatzarra aurretik, beraien esku daudela, hain zuzen ere, 1701/2022 zenbakidunetik 1919/2022 zenbakidunera.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

9. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Alkateak galde erreguen txanda ireki du eta lehenbizi, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Quiero manifestar un sentimiento, porque no es más que un sentimiento, Hoy había una convocatoria por parte del equipo directivo de Ondarreta, junto con el profesorado, alumnado, padres y madres, en defensa de la escuela pública vasca.

“Se realizaba la protesta para defender un sistema educativo vertebrado en la escuela pública que lograra una educación euskaldun para la cohesión social y la igualdad, que proponía la plataforma de centros públicos, consolidar y ampliar la red pública para lo que se pedía que se realizara una planificación razonable y una adecuación de la oferta de plazas escolares a la realidad, dotando a los centros públicos de los recursos necesarios y ampliando los cauces de publicación para aquellos colegios que quisieran sumarse a la red pública.

“Se reivindicaba con esa concentración un sistema educativo público, laico y que la escuela pública siga siendo un referente en la euskaldunización del alumnado y se reclamaba, entre otras reivindicaciones, que el sistema educativo garantice la cohesión social.

“Todos sabemos que hay un anteproyecto de ley en el que el resto de partidos, seguramente, vais a votar que sí, pero más allá de eso a mí lo que me ha resultado, un poco, no sé, no voy a decir indignante,



Andoingo Udala

Akta: Osoko Udalbatza

OHIKO BILKURA: 2022/10/27

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN ORDINARIA: 27/10/2022

pero sí que me ha decepcionado, porque creo que esos padres y madres pues a lo mejor si necesitaban un respaldo por lo menos.

“Una cosa es que voten un anteproyecto de ley educativo en el que se garantice más casi la defensa de lo concertado que lo público, que bueno, eso es un tema que como saben lo llevo peleando desde hace mucho tiempo, pero, lo que si me ha dado muchísima pena es no ver que desde el ayuntamiento se hace un acompañamiento a esas familias. Es por eso que quería manifestarlo aquí.”

Jarraian, Verdasco jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Yo, simplemente por comentar. Yo, como portavoz y concejal del partido socialista, indicar que yo he estado allí en la concentración, he estado allí.”

Santana andreak erantzun du:

“Usted ha estado allí, al otro lado para que no se le viera en la foto.”

Verdasco jaunak dio:

“No, simplemente, he estado allí, la foto le corresponde al colegio que es quien hace la reivindicación. Punto.”

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 19:40 minutu zirenean. Behin-behineko idazkariak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorri Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, behin-behineko idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.

Alkatea

Behin-behineko idazkaria

